



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0003

TOLOSAKO UDALA IRAGARKIA

*2026ko LORE ETA LANDARE AZOKA
BEREZIAN postua jartzeko oinarri
espezifikoak eta deialdia*

Tolosako Udaleko Aitor Aguirresarobe Murgui zinegotzi delegatuak, bi mila eta hogeita seiko martxoaren 25eko 2026/975 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman zuen:

LEHENA: Lore eta landare azoka berezian postua jartzeko oinarri espezifikoak onartzea:

LORE ETA LANDARE AZOKA BEREZIAN POSTUA JARTZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK ETA DEIALDIA

1. Azoka bereziaren ezaugarriak:

- **Data:** 2026ko maiatzak 30
- **Lekua:** Trianguloa plaza
- **Ordutegia eta muntaketa lanak:** postuek eta saltzeko produktuek jarrita egon beharko dute 09:00etarako, eta 16:00etarako jaso egin beharko dira.
- Ezin izango da 07:30ak baino lehen muntaketa lanekin hasi.
- Postuen muntaiarako beharrezkoak diren mahaiaik eta karpak Udalak jarriko ditu. Norbaitek eskaera edo behar bereziren bat balu, eskaera orrian azaldu beharko luke, Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak Sailak aztertu ahal izateko.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA ANUNCIO

*Bases específicas y convocatoria para la
instalación de puestos en la FERIA
EXTRAORDINARIA DE LA FLOR Y
PLANTA DE 2026*

El concejal delegado Aitor Aguirresarobe Murgui del Ayuntamiento de Tolosa, mediante Decreto 975/2026, de 25 de marzo de dos mil veintiséis, dictó la siguiente resolución:

PRIMERO: Aprobar las bases específicas para la instalación de puestos en la feria extraordinaria de la flor y planta:

BASES ESPECÍFICAS Y CONVOCATORIA PARA LA INSTALACIÓN DE PUESTOS EN LA FERIA EXTRAORDINARIA DE LA FLOR Y LA PLANTA

1. Características de la feria extraordinaria:

- **Fecha:** 30 de mayo de 2026
- **Lugar:** Plaza del Triángulo
- **Horario y trabajos de montaje:** los puestos y productos de venta deberán estar colocados para las 09:00 horas y recogerse para las 16:00 horas.
- No se podrán iniciar los montajes antes de las 07:30 horas.
- Las mesas y carpas necesarias para el montaje de los puestos serán instaladas por el Ayuntamiento. En el caso de que alguna persona tuviera una solicitud o necesidad especial, deberá hacerlo constar en la hoja de solicitud para su análisis por el Departamento de Desarrollo Económico, Empleo, Comercio,

ESKU604ce721-7553-42ce-9f6b-6aff57ed5698



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0003

Turismo y Ferias.

2. Postuak:

Postua jarri ahal izango dute lore, landare eta hazien ekoizpenean edo/eta salmentan eta lore, landare edo haziak erabiliz edo/eta hauek lehengai modura erabiliz artisau produktuak ekoizten dihardutenak.

Artisau produktuei dagokionez, arlo hauetakoak soilik baimenduko dira: Ehungintza, eztigintza, saskigintza, osagarriak eta egur tailak.

Esleituko diren postuetatik %50 izango dira gehienez ehungintza, eztigintza, saskigintza, osagarriak eta egur tailak saltzeko. Era berean, 5 arlo hauetako bakoitzerako (ehungintza, eztigintza, saskigintza, osagarriak eta egur tailak), postu kopuru totala kontuan hartuta, %10 izango da.

- Postu kopurua: guztira 10 postu jarriko dira.

Udalak, postuen banaketa egiterakoan, postuak jartzeko baino leku gehiago edo gutxiago edukiko balu, postu-kopurua handitzeko edo txikitzei aukera izango luke, 5. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera.

3. Baimen eskaera:

Aurreko artikuluan adierazten diren produktuak ekoizten eta/edo merkaturatzen dituzten pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek egin dezakete postua jartzeko eskaera.

- Eskaerak aurkezteko tokia eta modua:

a) Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

a) Aurrez aurre, UDATE herriarren

2. Puestos:

Podrán colocar el puesto los/las que se dedican a la producción o venta de flores, plantas y semillas y/o los que elaboren productos artesanales mediante el uso de flores, plantas o semillas o los utilicen como materia prima en su productos artesanos.

En cuanto a los productos artesanales, únicamente se autorizarán los de textil, miel, cestería, complementos y talla de madera.

Los puestos a adjudicar no podrán exceder del 50% para la venta de textiles, miel, cestería, complementos y tallas de madera. Asimismo, para cada una de estas 5 áreas (textil, miel, cestería, accesorios y talla de madera), en función del número total de puestos, se autorizará un máximo del 10%.

- Número de puestos: en total, se instalarán 10 puestos.

En el caso de que el Ayuntamiento, a la hora de distribuir los puestos, dispusiera de mayor o menor espacio que el destinado a su colocación, podrá ampliar o reducir el número de puestos de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 5.

3. Solicitud de autorización:

Podrán solicitar la adjudicación de un puesto todas aquellas personas físicas o jurídicas que se dediquen a la producción y/o comercialización de los productos que se relacionan en el artículo anterior.

- Lugar y modo de presentación de solicitudes:

a) Las personas físicas podrán presentar solicitudes de las siguientes maneras:

a) De forma presencial, en la oficina de



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0003

arretarako bulegoan.

Orduetgia: astelehenetik
asteazkenara: 07:15-14:15;
ostegunetan: 07:15-19:00;
ostiraletan: 08:15-14:15.

- b) Erregistro elektronikoaren bidez, www.tolosa.eus webgunera sartuta.
- c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
- d) Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

b) Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko kolektiboek (adibidez ondasun komunitateek) nahitaez eskaerak modu elektronikoan aurkeztu behar dituzte, Tolosako udaleko erregistroan edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan xedaturiko beste administrazioen baten erregistro elektronikoan.

- **Eskaerak aurkezteko epea:**

2026ko martxoaren 27tik 2026ko apirilaren 17ra (biak barne).

4. Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- **Pertsona fisikoen kasuan:**

1. Eskaera-orria
2. Ordezkaritza agiria (hala badagokio).
3. Nekazaritza ustategiko txartela (hala badagokio).
4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
5. Tolosako udal-tasak eta -eskubideak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. Ofizioz kontsultatuko da.
6. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) agiria.
7. Erantzukizun Zibileko Aseguruaren kopia eta azken erreziboa (gutxienez 150.000,00 €-koa).

atención al ciudadano, UDATE.

Horario: de lunes a miércoles: 07:15-14:15; jueves: 07:15-19:00; viernes: 08:15-14:15.

- b) A través del registro electrónico, en la página web www.tolosa.eus.
- c) En las oficinas de Correos, en los términos que reglamentariamente se establecen.
- d) En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

b) Las personas jurídicas y colectivos sin personalidad jurídica (por ejemplo las comunidades de bienes) están obligadas a presentar sus solicitudes de forma electrónica en el registro del Ayuntamiento de Tolosa o en el registro electrónico de otra Administración previsto en el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

- **Plazo de presentación de solicitudes:**

Desde el 27 de marzo del 2026 hasta el 17 de abril del 2026 (ambos inclusive).

4. Documentación a presentar:

Para realizar la solicitud, la persona interesada deberá presentar la siguiente documentación:

- **En el caso de las personas físicas:**

1. Impreso de solicitud.
2. Hoja de representación (en su caso)
3. Tarjeta de explotación agraria (en su caso)
4. Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.
5. Acreditación de estar al corriente de las tasas y derechos municipales con el Ayuntamiento de Tolosa. Se consultará de oficio.
6. Impuesto de Actividades Económicas (IAE).
7. Copia y último recibo del Seguro de Responsabilidad Civil (mínimo

ESKU604ce721-7553-42ce-9f6b-6aff57ed5698



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0003

8. Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea izanez gero: bizileku-edo lan-baimena.

9. Elikagaien salmentarako:

- Osasun-erregistroko agiria.
- Elikagaien manipulazio txartela edo baliokidea (ontziratutako gabeko produktuen salmenta egiten denean).

1. Artisautza produktuen salmentarako:

Dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta emanda egotearen agiria.

- Pertsona juridikoen kasuan, gainera:

Enpresaren ordezkaritza agiria (eraketa eskriturak, karguen izendapenak, botereak...). Ondasun erkidegoen kasuan, erkidegoaren eraketa agiria.

150.000,00 €).

8. En el caso de ser persona extracomunitaria: permiso de residencia o trabajo.

9. Para la venta de alimentos:

- Documento de registro sanitario.
- Carnet de manipulador de alimentos o equivalente (en el caso de venta de productos a granel).

1. Para la venta de productos de artesanía: Alta en el registro de artesanos/as del país correspondiente

- Personas jurídicas, también:

1. Documento de representación de la empresa (escrituras de constitución, nombramientos de cargos, poderes...). En el caso de comunidades de bienes, documento constitutivo de la comunidad.

39/2015 Legearen 28.2 artikularen arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, kontsultatu edo eskuratu egin ahal izango dituzte administrazio jarduleak jada bere esku dituen edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

En aplicación del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 reconoce a los interesados el derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante, o a consultar o acceder a los documentos que ya se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, salvo que el interesado se oponga a ello.

5. Hautaketa irizpideak:

Eskaeren kopuruak eskainitako plazzen kopurua gainditzen badu, aurkeztutako eskabide guztien artean zozketa egingo da.

Postu guztiak betetzeko nahikoa eskari ez badago, epez kanpo aurkeztutako eskaerak onartuko dira, baldin eta eskabideak behar den bezala eta beharrezko agiri guztiekin egiten badira. Kasu honetan, aurkeztutako hurrenkera hartuko da aintzakotzat.

5. Criterios de selección:

Si el número de solicitudes supere el número de plazas ofertadas, los puestos se adjudicarán por sorteo.

En caso de no existir demanda suficiente para cubrir la totalidad de los puestos, se admitirán las solicitudes presentadas fuera de plazo, siempre que las solicitudes se formulen correctamente y con toda la documentación necesaria. En este caso se tendrá en cuenta el orden de presentación.

ESKU604ce721-7553-42ce-9f6b-6aff57ed5698



6. Eskuerak baloratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak:

Eskiera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar laneguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren.

Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak Sailak eskabideak baloratuko ditu, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Ondoren, proposamena zinegotzi delegatuari helaraziko zaio, hark ebazteko dezan.

7. Postuen kokapena eta ebazpenaren argitalpena:

Udalak erabakiko du postu bakoitzaren kokapena zein izango den, eta informazio hori ebazpenean jasoko da.

Ebazpena Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da, jakinarazpen-ondorioetarako.

8. Baldintzak eta betekizunak:

Postua jartzeko baimena eskuratzeko, postua egokitu zaionak honako konpromiso eta betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- Baldintzak:
- Baimena jasoz gero, horren titularrak pertsonalki jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean bai behar bezala baimendutako enplegatu

6. Órganos competentes para la valoración y resolución de las solicitudes:

Si el impreso de solicitud o la documentación que debe acompañarla adoleciera de algún defecto o inexactitud, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez laborables, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane los defectos observados.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución.

El Departamento de Desarrollo Económico, Empleo, Comercio, Turismo y Ferias valorará las solicitudes mediante el correspondiente informe técnico. A continuación se elevará la propuesta al concejal delegado para su resolución.

7. Ubicación de los puestos y publicación de la resolución:

El Ayuntamiento determinará la ubicación de cada puesto, que se recogerá en la propia resolución.

La resolución será objeto de publicación en la página web municipal y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de notificación.

8. Condiciones y requisitos:

La autorización para la instalación de los puestos objeto de estas bases se otorgará con el condicionado siguiente:

- Condiciones:
- La autorización conlleva la obligación de su titular de ejercer la actividad de forma personal, directamente o a través de las personas empleadas o



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0003

edo laguntzaileen bidez.

colaboradoras debidamente
autorizadas.

- Baimena aurtengo azokarako soilik izango da, sekula ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo.
- Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen eta zerga arloko zein Gizarte Segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi ahal izango da.
- Betekizunak:
 - Udalak salmentarako emandako udal-baimena eskuragarri izatea.
 - Salmenta-prezioei, erreklamazio- orrien antolaketari eta abarri buruzko informazio orokorra jendearentzako erraz ikusteko moduan azaltzea, baita norberak egindako produktuei, kalitate-markei eta abarri buruzko informazioa ere.
 - Kokapenaren arabera antolatzaileek ezarritako saltokiak muntatzeko eta jasotzeko ordutegiak errespetatzea.
 - Salmentarako kokagunea, okupatzeko baimendutako azalera, perimetroak eta lekuak errespetatzea. Kaleek bat egiten duten tokietan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuentzat gordetako sarreretan ere ezingo dira jarri.
- La autorización se limitará a la feria de este año, y en ningún caso dará lugar a un procedimiento de renovación automática.
- El Ayuntamiento posee la facultad de realizar comprobaciones en cualquier momento respecto a los requisitos exigidos y las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Si se comprueba que la persona interesada no cumple los requisitos establecidos, la autorización podrá ser revocada.
- Obligaciones:
 - Tener accesible la autorización municipal para la venta otorgada por el Ayuntamiento.
 - Exponer la información general fácilmente visible respecto a: precios de venta al público, disposición de hojas de reclamaciones... así como la información facultativa sobre productos de elaboración propia, marcas de calidad, etc.
 - Respetar los horarios de montaje y recogida establecidos por la organización en función de la ubicación.
 - Respetar el emplazamiento, la superficie de ocupación autorizada, los perímetros y lugares para el ejercicio de la venta. No podrán, asimismo, situarse en las confluencias de calles, pasos de peatones o entradas reservadas a viviendas, comercios o vehículos.

ESKU604ce721-7553-42ce-9f6b-6aff57ed5698



- Beren produktuen kalitatearen arduradun izango dira uneoro, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, edo merkatura ateratzeko gutxienerako baldintzak betetzen ez dituztenak.
- Serán responsables en todo momento de la calidad de sus productos, sin que puedan ocasionar riesgos para la salud o seguridad de quienes lo consuman, supongan fraude en la calidad o cantidad, sean falsificados, no identificados o incumplan los requisitos mínimos para su comercialización.
- Postuan kartelen bat ipiniko balitz, edozein motatakoa izanda ere, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du, kontuan hartuta zer zehazten duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, eta Tolosako Udaleko Euskararen Erabileraren Normalkuntza Plana betez. Kartel horiek egiterakoan erabiliko diren mezuek errespetatu egin beharko dute emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia, hizkuntza inklusibo ez-sexista erabiliz, Tolosako Udalaren Berdintasun Planak dioena errespetatuz.
- Si se colocara algún tipo de cartel en el puesto, el mismo deberá redactarse en euskara o en las dos lenguas oficiales, respetándose tanto el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, como el Plan vigente de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa. Asimismo, los mensajes utilizados a la hora de realizar estos carteles deberán respetar la normativa de igualdad entre mujeres y hombres, utilizando lenguaje inclusivo no sexista y respetando el contenido del Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

9. Ez betetzeak:

Zortzigarren artikuluan jasotakoak ez betetzeak bidea emango dio Udalari saltokia ezartzeko baimenak kentzeko, eta 2027ko azoka berezian parte ez hartzeko.

10. Interpretazioa:

Postua jartzeko eskabidea aurkezteak honako arau hauek guztiak onartzea dakar. Arauak interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, Garapen Ekonomikoa,

9. Incumplimiento:

El incumplimiento de los apartados recogidos en el artículo ocho conllevará la retirada del correspondiente permiso de instalación del puesto y la imposibilidad de participar en la feria el año 2027.

10. Interpretación:

La presentación de la solicitud de colocación supone la aceptación de las siguientes normas. Las dudas en la interpretación de las normas serán resueltas



2026MAZB0003

Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak Sailak ebatziko du.

por el Departamento de Desarrollo Económico, Empleo, Comercio, Turismo y Ferias.

11. Oinarrien indargabetzea:

Oinarri hauek indarrik gabe geratuko dira baldin eta azoka ezin bada egin halabeharrez, agintari eskudunen erabakiz edo behar bezala justifikatutako beste inguruabar batzuen ondorioz

11. Derogación de las bases:

Las presentes bases quedarán sin efecto si la feria no pudiera celebrarse por fuerza mayor, por decisión de las autoridades competentes u otras circunstancias debidamente justificadas.

Tolosan, 2026ko martxoaren 25ean, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatua, Cristina Peláez Errazquín.

En Tolosa, a 25 de marzo de 2026, la concejala del Ámbito de Trabajo de Organización Cristina Peláez Errazquín.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026MAZB0003-IRAGARKIA/ANUNCIO (TOLOSAKO UDALA)